

Lehen hilekoa ardatz nagusi, «ahizpatasuna» ere lantzen duen eleberria

Gazteei bideratutako 'Putzua' (Erein) liburuan «bizi ditugunak naturaltasun gehiagoz» landu diu Goiatz Labandibar idazleak

JON AGIRRE

DONOSTIA. Laure izeneko 12 urteko neska oinarri du Goiatz Labandibar idazle oiartzuarraren 'Putzua' eleberriak, zehazki haren bizitzako egun konkretu bat: hilekoa lehen aldiz etorri zaiona.

Irakurleak ere kolpez jasoko du albistea eta lehen eskutik biziko du protagonistak sentitzen duen «sentimenduen koktela», besteak beste kezka, beldurra, haserrea, deserosotasuna... «Nahasketa bat», laburtu zuen Labandibarrek. Izan ere, esnatzean nabari ditu kuleroak odolez zikinduta, baina ez du inork jakiterik nahi, «bere sekretua» da.

Istorioak aurrera egin ahala Laurek ere segi egiten du, egileak aurreratu zuenez eleberriak «mezu positiboa» baitu eta protagonistak «bizitzan aurrera egi-



Goiatz Labandibar idazlea. **ARIZMENDI**

teko jarrera». Gainera, ez du bakarrik egingo 'bide' hori, familian zein lagunartean bidelagunak dituelako. Hori dela-eta, hilekoa etorri izanaren gertakariak gain «ahizpatasunari eta laguntasunari» buruzko istorioa dela azaldu zuen idazleak.

PUTZUA GOIATZ LABANDIBAR

Argitaletxea: Erein.
Adin-tartea: 12-16.
Orrialdeak: 112.
Prezioa: 15 euro.
Azala: Ane Narbarte.



Bat azaldu zen Inazio Mujika Erein argitaletxeko kidea, mui-nean «harremanak eta komunikazioa edo inkomunikazioa» dau dela «oraindik tabua izaten jarraitzen baitute zenbait kontuk». Noski, 12-13 urte dituen neska izanik, «ume izatetik nerabe izatera igarotzen» ari den une horretan, zalantzak asko dira. Bai bera bizitzen ari denak zein zaharragoa zuen ahizpari begiratauta sortzen zaizkionak. «Hilekoa duen horren azalean jartzeko ariketa» bezala definitu zuen.

Labandibarrek zehaztu zue-nez, aspaldian landu nahi izan du gaia «oso gauza fisiologiko edo biologikoa» izateaz gain, beste-lako konnotazio asko dituelako, batzuk «sozialagoak» eta beste asko «gizartean herentzian jasotako sineskeriak eta abarrak».

Azkenik, liburua neska gazteei bideratua badago ere, soilik haientzat ez dela argi utzi zuten.